

ibaizabal

Leonardoren hegoak

FERNANDO MORILLO



Hiztegitxo

Hobeto irakurtzen laguntzeko



agintza promesa	Baita bertan adostutako zenbait agintza eterno bezain iheskor ere.	49
aingura itsasontzien euskarria	euskarri bat bilatuko balu bezala egin zuen. Aingura bat ekaizpean.	163
aintzat hartu kontuan hartu	Osaba Karlos izan zen, denbora luzean, aintzat hartzen ninduen bakarra; benetan kasu egiten eta galdera deseroso pilorekin ziztaten ninduen bakarra.	17
akituta nekatuta, lehertuta	Taberna batean zerbait azkar jan, furgonetara itzuli eta bueltako bidaia hasi genuen, akituta eta burumakur.	126
akuilagarri zirikagarria, pizgarria, tentagarri	— Osaba ikustea nahiko akuilagarria zen, baina Leonardoren ezkuizkribu bat! Eta bahitze bat, altxor baten atzetik ibiltzea... eta zu.	145
alproja arlotea, alferrontzia	Alproja horiek nirea eraman dute.	110
amarra lokarria, lotura	Nolabait esateko, amarrak askatu nituen.	106
amildegi erroitza, troka	Urtebete amildegia da adin horretan.	44
amorrarazi sutan jarri, sumindu	...etengabean iristen zaizkit aholkuak eta irakaspenak, eta ez ditut nahi eta ez didate ezertarako balio. Amorrarazteko ez bada behintzat.	12
anbiguo zehazgabea, interpretazio irekia	Hura zen, bada, haren <i>sfumato</i> ospetsua: giro irreal, leun eta anbiguo a sortzen zuen argia erabiltzea.	70
anizkoitz askotarikoa, multiplea	...haietariko batzuk, gainera, pertsonaia anizkoitzak dira.	47
arbuia mesprexatu, baztertu	Gero, aitarekin eman zuen denboraldi bat, eta Leonardoren anai-arrebaordeek plazer handiz arbuia zuten.	70
arian-arian apurka-apurka, pixkanaka	Arian-arian , barealdia etorri zen eta, noizbehinkako negarraldiren baten ostean...	18
arrakala pitzadura	Arrakala jarraitu, eta zabalduz zihola konturatu nintzen.	166
asaldaturik aztoratuta, kezkatuta	Benetan asaldaturik nauka honek guztiak.	66
asmakizun gauza sortua (<i>invento</i>)	Beste inork imajinatu ere egiten ez zituen asmakizunak garatzen zituen bitartean...	70
ataka estualdia, egoera larria	...nahiko ondo hartu nuen lurra, kontuan izanik inoiz ez nintzela halako ataka batean egon.	63
aztoratu arduratua, kezkatua	— Karlos, <i>be carefull!</i> —oihukatu zidan emakume baten ahots aztoratuak . Ingelesez. Eta, oso oker ez banenbilen, kontuz ibiltzeko esaten zuen.	60
babo tentela, leloa	— Harrera-musu bat emango nizuke, baina ez dakit merezi duzun. Zurrun eta babo sentitzen nintzen.	43
bakan paregabea	— Garbi dago bakana zarena bakana izaten —esan zidan, hortz arteko barre eginez—.	144
baranda eskudela, oratzeko ertza	...bi bulkada gehiago, bat, bi, eta barandaren beste aldera pasatu nintzen.	81
baretu lasaitu, mantsotu	Nire bihotzeko taupadak ez ziren baretzen .	64
barrendu barneratu, sartu	...Oierrek bidalitako testuetan barrendu nintzen.	171
barrunbe barruko aldea	Barrunbe osoa korritu nuen linternaz.	168
bermatu finkatu, tinko jarri, apoiatu	Oin bat harrian bermatu , eta bestea osabaren sorbaldaren gainean...	174



berraragitze norbaiten gorputzean jaiotzea	Chaudron, Valfiernoren ezaguna, Leonardoren berraragitzea zela sinetsita zegoen.	120
bidenabar bide batez	...Borgia eta Makiaveloren garaietako intrigetan barrentzea bezala baitzen (bidenabar , Makiavelo ere florentziarra zen!).	30
damudun arrepentitua	San Joan Batatzailea damuduna eta gorra zen arren...	173
dardarizo ikara, dardara	...egiazkoa zela ikusteak, nostalgia- dardarizo bat eragin zidan.	29
destatu apuntatu	Batek begiratu egiten zuen, eta besteak pistola batez destatzen gintuen...	176
dezente nahikotxo, ugari	Antza zenez, Leonardok eztabaida dezente sortu zuen santua pixka bat fokuz kanpo aurkeztu zuenean.	172
dohain gaitasuna, trebetasuna	—Gutziz. Valfiernok, bere dohainei esker, ezagutzen dudan arte-lapurretarik esanguratsuenetako bat egin zuen.	120
dohakabe zorigaiztokoa, malurusa, gaixoa	«Ikasle dohakabea irakaslea atzean uzten ez duena!»	139
durduzatu gogoa nahastuta, zurtuta	Nik durduzaturik jarraitzen nuen. David izan nintzen une batez. Benetan izan nintzen!	59
egoskorkeria setatia izatea, burugogorkeria	Hau guztia egoskorkeriagatik da...	74
egotzi bota, aurpegiatu	...bost axola zait zer duten esku artean, nolako mespretxuak egozten dizkioten elkarri, edo zenbat plater jaurtitzen.	13
ergelarena egin leloaren plantak egin	—Ez. Zergatik? —erantzun nion, ergelarena eginez .	177
erreinu erresuma	Nire erreinua haragi gordinaren truke! Puf, puf.	141
esanguratsu adierazgarria, nabarmena	Esanguratsua iruditzen zitzaidana...	171
eskarmentu esperientzia	...indartsuagoa da, eskarmentu handiagokoa.	57
eskerga neurrigabea, handi-handia	...angustia eskerga igortzen nuen. Nik ezin izan nion eutsi.	78
eskuizkribu dokumentua, idazkia	—Joan hara eta eskuizkribu batzuk bilatu.	61
etruriar etruskoa, Italia iparreko biztanle	Hemen bizi baitziren etruriarrak , ezta?	165
etsiak hartuta amore emanda, desesperatuta	...—esan zion azkenik, etsiak hartuta .	105
eulitzar mandeulia	— Eulitzarra zarela esaten ari al zara?	51
ezkilore infusio lasaigarria (<i>tila</i>)	Hartu arnasa, gazte. Edan kikara bat ezkilore . Edo hiru.	74
ezta hurrik eman ere ezta pentsatu ere, antzik ere ez	—Leonardok marraztutako mapak ez dauka honen antzik. Ezta hurrik eman ere .	125
fardel paketea	«Uuuu!»labur bat atera zitzaion, kolpe sor baten moduan, eta berunezko fardel baten modura jausi zen.	155
friki estrafalariora, deigarria	Friki tentelen bat izango nintzela pentsatuko zuten, Spidermanena egiten edo.	63
funtsean printzipioz, oinarrian	Hala ere, funtsean leku bera zen.	29



gar sugarra	...nire txalupatxoa ekaizpean dagoen gar txiki baten modura dardarutzen bada ere, zorte handia daukat: batere ugari ez diren bi aterpe ezagutzen ditut.	14
gatibu presoa, atxiloa	Egun-argiak itzalak sortzen ditu leizeko hondoan, eta gatibuek errealitate bakarra balitz bezala hartzen dituzte haiek.	31
gogoberotuta animatuta	—Michelangelok ez zuen garaipena nahi izan —ohartu nintzen, gogoberotuta —. Adorea nahi izan zuen.	58
gontz erroa, bisagra	Kutxa goitik behera arakatu zuen, harik eta gontz edo ezkutuko konpartimenduren bat ez zeukala ziurtatu arte. Lumak!	181
gorpuzki gorputz hondakina	...Danteren gorpuzkinak ez zeudela han.	36
grina pasioa, irrika	Mezu mingarri eta lapsus maltzur horiek guztiak, eta kontserba-ontzi herdoildu batean bezainbesteko grina .	13
hanka egin ospa egin, urrundu, aldendu	Besotik heldu eta handik hanka egin behar genuela adierazi zidan keinu adierazgarri batez.	66
heldu Oratu	...esan nion atzera bereizi eta eskuetatik heltzen niola.	44
helezin erasoezina, eskuraezina	Gure isiltasuna leku hartakoari gehitzean, katedral helezin eta hermetiko baten itxura hunkigarria eman zion.	168
herdoildu ugertu, oxidatu	Mezu mingarri eta lapsus maltzur horiek guztiak, eta kontserba-ontzi herdoildu batean bezainbesteko grina.	13
hitzaurre sarrera	Eta honekin amaitzen dut hitzaurrea , eta benetan hasten naiz.	14
homilia predikua, sermoia	Harekin, homiliak ere entretenigarriak iruditzen zitzaizkidan.	141
igorri bidali, helarazi	Nik, noski, ez nuen zipitzik ulertzen zer adierazten edo zer mezu igorri nahi zuten, baina oso gogokoa nuen haien guztien hilobiegi begira egotea.	36
ihardetsi erantzun	—Leonardo ezagutuko ez dut ba! — ihardetsi nion Julieti—.	71
iheskor iragankorra, erraz desagertzekoa	Baita bertan adostutako zenbait agintza eterno bezain iheskor ere.	49
ikusgarritasun lilurazkoa, eder-ederra	...baina ez nuen ezer berezirik ikusi, lekuko ikusgarritasunaz harago.	173
ile-xerlo ile-sorta	...haren mugitzeko modua, kopetako ile-xerloa jasotzekoa...	42
iltzatu finkatu, josi	Giorgioren begirada topatu nuen, nigan iltzatuta .	177
induskatu zulatu, aztarrika egin, hondeatu	Ez gara lurra induskatzen hasiko, ezta?	166
irain laidoa, mespretxua	... irainak jasan behar izan zituen.	70
irrika desira bizia, grina	Pentsatzen dut horrek ezkututzen lagunduko didala, baina irrika handienaz espero dut...	12
ispilatu islatu	Nire buruaren barruan autotxoke-postu bat eratua zen: elkarren aurka ari ziren hainbat oroitzapen, ispilatze eta kimera.	55
itolarri estualdia	Beharbada, nire itolarria inoiz geldirik ez egoteko, nire mapamundi mugatuaz harago iristeko...	36
itomen arnasestua	eta beste 15 urte irauteko, ia arrastaka, ahalik eta gutxien mugitzen eta ahal duen moduan amets egiten, muki eta itomenen artean.	24
itsumustuan tupustean, ustekabea	Itsumustuan , beste besarkada bat ematera oldartu zitzaidan.	44



izadi natura, izatasuna	— Eta izadian dena zikloa da: urtaroak, gaua eta eguna...	116
izorratu fastidiatu, hondatu	Dena izorratzera , «suposatzen dut».	174
jaramon egin kasu egin, arreta jarri	Jaramon egin nion eta begiak itxi nituen. David bihurtu nintzen.	56
jelosia bekaizkeria, inbidia, ondamua	Haren begietan mesfidantza irakurri nuen. Eta jelosia . Une maltzur batez, biziki ondo sentitu nintzen. Izorra dadila, pentsatu nuen.	53
kabenzotz kaka zaharra	— Ez da osaba, eta sarraila irekitzen saiatzen ari dira. Kabenzotz . Zer egin behar dut?	62
kabitu poz-pozik, harro	— Badugu! Badugu!-esan zuen, kabitu ezinda .	177
kakaztu hondatu, alferrik galdu	Glaserrek etorkizuna irudikatzen zuen eta nik dena kakaztu .	90
kale egin huts egin	— Ez izan beldurrik kale egiteari . Ez dago erantzun bakarra. Alderantziz.	57
kaotiko desordenatua, zentzugabea	Mahai kolokati hartan, zenbait paper eta eskuizkribu ikusi nituen, ordena kaotiko batez pilatuak.	31
kemen ausardia, adorea	Batzuetan, zera baino ahulagoa naiz, eta ez dut gogoko nire izatearen kemenik eza.	30
kikara katilu txikia	Edan kikara bat ezkilore.	74
kikildurik beldurturik, mekotuta	Amalurrekin kikildurik sentitu nintzen, ikaraz eta akonjatuta. Baina inola ere ez urrun.	55
kimera ilusioa, amets lor ezina, irrealia	Nire buruaren barruan autotxoke-postu bat eratua zen: elkarren aurka ari ziren hainbat oroitzapen, ispilatze eta kimera .	55
kiskaldu erabat erre	amesten dut pozez egiten dudala negar, kiskaltzen ez nauen eguzki baterantz hurbiltzean.	12
klaska-hotsa klik egite soinua	Klaska-hotsa iristen zitzaidan sarreratik.	63
kolokati loka, finkotasunik gabea	Mahai kolokati hartan, zenbait paper eta eskuizkribu ikusi nituen, ordena kaotiko batez pilatuak.	31
kondaira legenda	...beste guztiek kondaira hutsa zela pentsatu arren...	16
korridore pasilloa, karrajua	Harrizko bigarren korridorea beste gela txiki eta soilago batera zihoan.	169
koska eragozpena, traba	Horra hor koska : nire mapak puska zuri gehiegi ditu.	12
koskabilo barrabila	...joder, neure burua han ikustea, filmetako espioi bat banintz bezala, koskabiloak zimurtzen zizkidan, harrotasun puztu baino gehiago.	82
krudel ankerra, bihozgabea	Gaztea izatea, diotena diotela ere, lanbide krudela da.	11
kuttun gustukoa, maitea	Oso kuttunak zitzaizkion jolas matematikoak eta kodeak.	71
kuxkuxean ikertzen, jakin-nahian	Eta zein Florentzia baino leku hoberik kuxkuxean hasteko?	33
lapsus hutsegitea, ahanztura	Mezu mingarri eta lapsus maltzur horiek guztiak, eta kontserba-ontzi herdoildu batean bezainbesteko grina.	13
larrua jo amodioa egin, txortan egin	— Larrua jo ? Zoratu egin al haiz? Hamasei urte zeuzkak, hogeituro urteko mutil-laguna eta, asko jota, bere anaia txikia naizela irudituko zaiok.	131



lauso ilundua, difuminatua, zehaztuga	Lauso samar dago, eta erdi-ezabatuturik.	112
lautasun xalotasuna, naturaltasuna	Morand-era iritsi ginenean, atentzioa eman zigun lehenbiziko gauza lautasuna izan zen.	125
leize kobazuloa	Platonen leizetik ateratzea bezala izan zen, ilunasunera lotzen ninduten kateak hautsi ondoren, eta eguzkiaren argiarekin topo egitea bat-batean.	59
lerde adurra dariola, ttua ahotik beher	... lerdea erortzen ariko zaizuela...	65
likatsu lirdingatsua, likina, bigun-itsask	Idatzita ikusirik, zer likatsua dirudien, zer pellokeria ergela. Eta, hala ere, hain zuzena.	33
liluratzaille txunditzen duena, zirrara eragite	...dena zen liluratzaillea .	70
lorea laudorioa, gorespina (<i>piropo</i>)	—Hara. Hori sekulako lorea da niretzat!	46
makiabeliko deabruzkoa, gaiztoa eta faltsua	Irribarre makiabelikoa zeukan aurpegian.	177
malkartsu aldapatsua	Nire Erroma partikularra bihurtu zen: aldapa malkartsuen egiten zitzaidanean, bide guztiek hara eramaten ninduten, Florentziara.	16
mamitsu esanguratsu	Harantz jo nuen, eta nora ezean ibili nintzen gero, “ristorante” mamitsu , uso kakati eta giza-faunen artean...	35
maneiagarri manipulagarria	Egia esateko, nahiago dut hori, ni aitzakia maneiagarritzat hartzea baino.	13
mesfidati fidagaitza, aierukorra	...oso mesfidatia bihurtu zen.	70
mespretxu gutxiespina, erdeinu	...bost axola zait zer duten esku artean, nolako mespretxuak egozten dizkieten elkarri, edo zenbat plater jaurtitzen.	13
miatu arakatu, aztertu	...komunikatu zioten gu miatu ondoren.	182
miretsi lilura sentitu (norbaitengatik)	Miretsi egiten dut, eta maite dut.	17
muino menditxoa, tontor zapalekoa	Mapak muino hori seinatzen du.	166
nekez kostata	...oso nekez ulertzen dizut eta.	61
neuronak ketan utzi buelta asko eman zerbaiti	Osabak begiak erdi-itxi eta neuronak ketan utzi zituen.	114
norako helmuga	Norako finkorik gabe jarraitu nuen, kaleetan zehar.	36
nostalgia oroipen sentitua	...egiazkoa zela ikusteak, nostalgia -dardarizo bat eragin zidan.	29
oldarkor erasokorra, sutua	Oldarkor samarra da...	102
oleo pintura mota, oliotsua, koadroa	...bere azken oleoetariko bat margotu zuen...	172
oroimen oroitzeko gaitasuna	Oraindik ezin naiz jarri komeni zaidan guztia ahaztera, batez ere nire oroimenak tira egiten didalako, zera baino hutsago baitaukat.	11
paradoxa kontraesana, uste denaren kontra	Paradoxa, izan ere, dibertigarriagoa zen logika zentzuduna eta neurritsua baino, eta maiz biziagoa.	121
paranoiko maniatikoa, txoratua	...martxa hartan, zeharo paranoiko amaitu behar nuen.	66



potroak moztu irendu, zikiratu	Esan horiei potroak moztuko dizkiedala...	73
potroso nazkantea, jasanezina	Eta litekeena da gainera altxor-bilatzaile potrosoren bat aurkitzea, eta berarentzat gordetzea.	112
preseski hain zuzen ere, zehazki	...hura guztiz benetakoa zen, eta harrapatzen baninduten ez zidaten harrera-festa bat antolatuko preseski .	82
puxka batez apur batean, tartetxo batean	Niri begira egon zen puxka batez .	46
salbajantzi flotadorea	Florentzia salbajantzi bat izan da nire bizitzako une penagarrietan.	16
salto egin jauzi egin	Salto egin nuen.	63
samin erretxina, garratza	Beraz, ez dezazuela pentsa tipo samina naizela.	14
samurtasun goxo, atsegin	— Ulertzen dut: benetakoan —esan zuen, samurtasunez.	48
sarraila kisketa, morroiloa	...pauso arin bezain isilean joan nintzen ateraino. Xuxurla bat entzun nuen. Etxeko sarrailan ari ziren.	61
sarri zarratua, itxia, ugaria	Harrizko horma hurbildu, eta behealde osoa sasitza sarri batez estalirik zegoela ohartu ginen.	166
sasiko sasikumea, ezkontzaz kanpokoa	...baserritar eder baten seme sasikoa zen.	69
sasitza sastraka	Harrizko horma hurbildu, eta behealde osoa sasitza sarri batez estalirik zegoela ohartu ginen.	166
sastraka sasiak	Harri luze bat hartu nuen, eta sastraka baztertzen hasi nintzen...	166
sen instintua	Barruko senak horrela gomendatuta zentimetro batzuk urrundu nintzen...	53
sermoi predikua, homilia	-Eta nork esan dizu fraide izan nahi dudala? Ez adarrik jo, osaba. Zuk ez. Sermoi bat? Orain horrela?	137
sfumato lausotua bezala, difuminatua	Hura zen, bada, haren sfumato ospetsua: giro irreal, leun eta anbigua sortzen zuen argia erabiltzea.	70
sor gogorra, <i>sikua</i>	«Uuu!» labur bat atera zitzaion, kolpe sor baten moduan, eta berunezko fardel baten modura jauzi zen.	155
tailu irudia	Guztiz iluna zen, eta ez zeukan ez tailu , ez marrazkirik.	177
tamalgarri penagarria	...nire garunean beldurra eta desioa aldizkatzen ari ziren, baina gero eta pisu handiagoa zeukan bigarrenak. Hura oinaze nahasgarri eta tamalgarria .	142
txalo esku-zarta	— Zeozer entzun dudala uste dut... —harritu nintzen. Txaloak ?	174
txitean pitean sarri, tarteka	...eta txitean pitean eramaten ninduen hara osabak, hango gela amaigabeetako koadroak mirestera...	65
txora-txora eginda zeharo liluratuta, maiteminak jot	...eta neska bat ikusi nuen. Une hartatik bertatik, txora-txora eginda geratu nintzen harengatik.	38
txosna txabola, kaseta	...orduan primeran antolaturik dago bizitza deritzon txosna madarikatu hau.	13
ukituta hunkituta, afektatuta	— Bai. Ukituta nentorrean etxetik, eta berriro bakarrik nengoela ikustean...	25
uzkur mesfidati, urrunduta	Ni gero eta uzkurrago sentitzen nintzen.	45



xuxurla zurrumurrua	Ez nuen sekula ezer entzun uste izan, baina oraingoan zalantzak neuzkan. Beharbada, iritsi zitzaidan xuxurlaren bat.	36
xuxurlatu ahapeka esan, isilean	—Joango al gara? — xuxurlatu nien.	169
zaharberritu berriztatu, konpondu	Etxe bat zaharberritzen ari ziren...	68
zalantza ezbaia, duda	Ez du zalantzarik irabaziko duela.	57
zalditeria armadako zaldizkoen multzoa	... zalditeriari deituko dio.	96
zenotafio hilobi hutsa, gorpu gabea	— Zenotafioa . Horrela esaten zaio ehorzte monumentu bat jaso baina gorpua beste nonbait dagoenean.	39
zezelka totelka, dorpe hitz egin	Zezelka egin nuen.	50
zilbor xilkoa, sabelaldeko erdigunea	«Altxorra (...) zilborrarekiko distantziakide diren puntuen amaieratik hamar kilometrora...».	112
zipitzik tutik ere, arrastorik ere	Nik, noski, ez nuen zipitzik ulertzen zer adierazten edo zer mezu igorri nahi zuten, baina oso gogokoa nuen haien guztien hilobiegi begira egotea.	36
zirrara emozioa, hunkipena	Ez zirudien arriskutsua, sentitzen nuen zirrarez harago.	168
zirrikitu bitartea	Gelako ertz batean, itzaletan erdi-ezkutataturik, zirrikitu zabal bat zegoen.	173
ziztatu zirikatu	Osaba Karlos izan zen, denbora luzean, aintzat hartzen ninduen bakarra; benetan kasu egiten eta galdera deseroso pilorekin ziztatzen ninduen bakarra.	17
ziztu bizian arin-arin, arrapaladan	Ziztu bizian hasi zen, orain ingelesez...	72
zorroztu findu, zehaztasunetaraino iritsi	—Ez direla Leonardo gutxi munduan. Baina askotan ez dira zorrozten , ene. Ez daude behar bezain... obsesionatuta.	134
zurgin arotza, zura lantzen duena	Vincenzok Pariseko Louvre museoan egiten zuen lan, zurgin gisa.	122
zutabe euskarria	Diotenez, itsas-ibilaldia ona denean, familia euskarria da, edozeri eusten dion zutabe sendo bat.	13
zuzi lastargia, tortxa	Braust zabaldu zen atea. Francesco azaldu zen, begiak su beltzezko zuziak bezala.	152